


ILEROKO ALDIZKARI EDERGAŔIDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

—: IX Urtea | 1927'ko Neguila | 108 Zenbakia :—

# ¡Agur, Maria, sortzez garbia!



AMA Birjiña Sortzez Garbiak zer esan nai duan badakizu?

Gauez oskarbi danean, izaŕez beterik agertzen da ortzia. Oskarbi diogunean bada, ortzia garbi ta izaŕez betea itz batean esaten degu.

**Guziz garbia.**

Ama Birjiñaren anima ortzi garbia da bere sortzetik. Pekatu guziz garbi dago.

Gizon guziak lausoturik daude; bakaŕik Ama Birjiña da lausogabeko lilia, betiko Eguzkiaren eŕaiñu diztiatzal̃ea; zerutik eroritako eluŕ-malo zuria. Adanen pekatuari Birjiña onen animan etzion Jaunak sartzen utzi ta bizitza guzian pekatu txikienik ere etzuan Birjiña oŕek egin.

**Graziaz betea.**

Ama Birjiñaren anima izaŕez betetako ortzia da. Izar oiek grazi santua ta Jaunaren onoimenak dira.

«Graziaz betea» deitzen dio Gabriel Aingeruak.

Nola? Jaungoikoak aña osotasun izan al ditzazke emen bean eŕestaka dabil̃en emakumetxo batek?

¡Bai zera! Baño zeñek eztaki, ibaiak itxasoak aña urik eztuala eta eŕekak ibaiak baño gutxiago daramala?

Itxasoaren antzekoa da Jaunaren osotasuna, ibai ujoltsuen antzekoa beŕiz Ama Birjiñaren santutasuna eta eŕekatxoena bezelakoa beste santuen ontasuna.

Ama Birjiñak sortzean santu ta aingeru guziak izan duten eta izango duten baño grazi ugariago artu zuan. Grazi oŕen bidez bere burua ez ezik, gizon guzien animak ere zeruratu zitzazkean.

Graziakin batean eman zion Jaunak aŕazoia, eta aŕazoi bikain ori goiko argiz argitu zuan.

Grazian dagon animak egite on bat egiten duan bakoitzean, len zeukan grazia ta merezimentua askoz geiago geitzen du. Elizako irakasle ta jakintsu batzuek diotenez, lendabiziko egintzan miła gradu bezelako grazia baldin bazeukan, bigaŕenean bi miłazkoa izango du, irugaŕenean lau miłazkoa, laugaŕenean zortzi miłazkoa, seigaŕenean ogeitamabi miłazkoa.

Poztu gaitezen Ama Birjiña bere sortzean ain santua ikustean eta poztu gaitezen ez bakaŕik beregatik, gure zoriona dakarkigulako baita ere.

**Jaungoikoaren Amaren jaia da Sortze Garbiko jai au.**

Jesukristok bere eŕaietan aragia artu arte ezta Jaungoikoaren Ama, baño bere bizitzako lenbiziko unean Jaungoikoaren Ama izateko aukeratua izan da eta oŕegatik pekatu guziz garbi soŕerazten du Jaunak. Sortu da bedeinkaziozko frutua emango duan zuaitza. Sortu da santutasunezko Eguzkiari auŕeratu zaion Egun-sentia. Sortu da Jaungoikoaren Ama eta bereala bere besoetan ikusiko degu Semea.

**Garbitasunezko jaia da jai au.**

Zergatik bereganatzen ditu biotz guziak Jaungoikoaren eskuetatik sortzen dan Birjiña oŕek? Garbitasunez.

Eluŕa baño zuriago ta garbiagoa da. Izar ortan ezta lausorik nabaritzen *Tota pulchra es, Maria, et macula originalis non est in te.* Guziz edeŕa zera, Maria, eta jatoŕizko pekaturik zugan eztago.

**Ama Birjiña sortzez garbia maite dezagun.**

¿Zein Jesukristoren ondotik Ama Birjiña baño edeŕagoa ta grazi geiagokoa?

Guk bere Ama maitatzea nai du Jaunak. Berak gure Amatzat eman zigun. Berak Ama oŕen eskuetan goiko aberastasunen giltzak jaŕi zitun.

Zerura juateko biderik eŕezena Ama Birjiña maitatzea da. «Mariaren maitale egiazkoa ezin diteke inpernura juan, Ama oŕi zerura juatea eskatzen badio eta leialki serbitzen badio» dio Ligoriotar Alfonso Santuak. «Maria da Noeren kutxa eta kutxa ortandik kanpora zeruratzerik eztago», erantsitzen du Bernardo Santuak.

**Ama Birjiñari garbitasunezko onbidea eskatu zaiogun.**

Garbiak izan nai dezute, gazteak eta zaŕak, gizonak eta emakumeak. Baño ezin... Zergatik? Otoitz egiten eztezulako.

Garbiak izateko bi gauza bear dira. Lenbizikoa: nai izatea. Bigarena: otoitz egitea.

Garbitasuna irixteko otoitzik bikañena Ama Birjíña guziz Garbiaren bitartez egiten dan otoitza da



**Ni naiz lareko lorea eta zelaietako lilia** (Cant. II, 1).

Ama Birjiña guziz garbiari egunero iru *Agur Mari* jeikitzean eta oieratzean esan zaizkiozute eta ikusiko dezute, nola garbitasuna galdu ezpadezute, ez dezuten ia galtzen; eta galdu badezute, nola zuzentzen zeraten eta Jaungoikoaren grazian iltzen zeraten.

*Oleartso A.*

# LORETI

Lokatz zikiñez josirik zegon bidetik
zikindu gabe nai zun igaro Loreti'k.
Lokatz-gañean an-or aŕiak ba dira,
«noan pol̄iki lokatz ta aŕiai begira»
esan, ta arturik bere eskuetan makil̄a.
abiatu zan zoriontasunan bil̄a.

Amets gezuŕa. . ¡Zeru bidea, ai! utzita
noruntz dijoa zerutar uso pol̄ita...!
Egak izan-ta ¿zergatik egan ez egin?
Lokatz bide au ¿noletan zaio atsegin?

Ator gugana...! entzuten nun bide-ertzetik...
Ator...! zioten-bideko lokatz-tartetik.

Erantzun gabe, alde egin nuan mendira,
ta antxe egon nintzan pozez Zerurontz begira.
An ere laister jakin genduan beŕia:
«Etxean dago Loreti loiez josia.»

Ara menditik orduan nere biotzak
zuzendu zizkan itz ezti baña zoŕotzak:



Agur, ene il̄obatxo
Loreti maite;
ziñez zoriontsua
beti izan zaite.

Zorionik – diozu –
emen ez dago:
ez unan, ai! esaten
ori lenago.

Zorionik ez zegon
lokatz-bidean.
¿Ba-dakin nun zegonan?
An, gurutzean.

Jaunak agertu zigun
bide oŕetan,
ez munduak uste dun
atsegiñetan.

Ire burua ukatu
ta gurutza artu.
Jesus'ekin piztu, ta
Zeruan sartu.

¿Zoriontsu izan nai den..?
Oŕa bidea:
beste biderik ez den,
ene maitea.

Egizko Zoriona
an, Goiko ura...
Ene il̄obatxu ona,
ene Loreti,
gaurtik Zerura
begira beti.

*Jauregi'tar L.*

# Elizaren Laugaren Agindua

*Si poenitentiam non egeritis, omnes similiter peribitis* (Luc. XIII-3)
Ez ba-zenute nekabidea artuko, guziok alaxe galduko zerate.



ELIZAREN laugaŕen agindua, Jesukristo'k itz oietan eskatzen digun nekabidea betetzekoa da.

**Zein da Elizaren laugaŕen agindua?**

Elizaren laugaŕen agindua auxe da: Ama Eliza doneak agintzen duanetan aragi-uztea ta barua egitea» (B. K. I.)

Amarik biotz beratzenak ere, bere agotik kentzen dio auŕari, kalte egirgo lioken janaria, naiz auŕak negaŕ egin. Berauxe egiten du gure Ama Elizak ere bere auŕekin.

Agindu onen bidez agotik kentzen digu egun batzuetarako aragia ta beste batzuetarako otordu ugaria.

Baño esango dezu: Zertarako utzi, naiz aragia naiz otordua? Gauza askotarako utzi bear ditugu aragi ta otordu ugaria:

1ª. *Gure pekatuzko geiegikeŕien ordañez*, Jaungoikoaren barkazioa irixteko.

Ninivetaŕak baru gogoŕa egin zuten beren gaiztakerien ordañez ta Jaungoikoak bialiko ziela gaztigatutako zigorkada, aŕi eskeŕak baztartu zuten.

Oŕa juduak, Jaungoiko berak agindu-ta ogei-ta lau orduz baru egiten, eskeintza pakagaŕia Ari eskeñi bear zioten egunean (Lev. XXIII'an.)

Luŕeko eŕialde guzietan iduki da beti baru egitea, pekatuen barkazio edo barkapena iristeko bidetzat. Siñiste gabe edo jentilak ere ba-zituzten beren baruak; moruak urtero beren baruak egiten dituzte eta guziak uste izan dute, oŕela beren jainkoaren eŕukia iritxiko zutela.

2ª. Aragia utzi-ta baru egitera beartzen gaitu Elizak, oŕela *gure gorputza edo aragia eŕazago garaitu dezagun.*

Aragia indar aundiko janaria bai da. Eta maiz aragia janez gorputzak bizitasun eta su geiegi artu-ta, aidatzeko aŕixkua bai-dauka; eta otordu guzietan naikoa janez geroz, berdin.

Oŕa, ba, zergatik Elizak, gorputza menderatu dezagun, debekatzen digun, zenbait egunez aragia ta beste zenbaitez otordu ugaria.

«Zaldi ongiegi jana, ezikaitza ta beroa ezitzeko, zaldalea kendu egiten zaio; nere gorputza ezitzeko, baru egiñarazten diot» dio Agustin Santuak.

3ª. *Baruak bizkortzen ditu gure gogoaren indaŕak.*

Daniel Igarle santua, baruen bidez paratu zan Jaungoikoaren goiargiz eta jakinduriz betea egoteko. Berdin gertatu zan Moises, Elias, Juan Batai-

laria ta Lege Beŕiko baru zale aundiakin.

Paulo Apostolu deunak dio, buŕukarako baru egiñez gertutzen dan buŕukaria, eŕazago ateratzen dala garai (I Corint. IX-23);

«Santuak esaten digute barua dala: Oitura txaŕen eriotza, oitura onen



Iruña'ko gure Komentua.

bizia, gorputzaren pakea, gogoaren indaŕa, bizitzaren apaingaŕia, anímen bizkorgaŕia, txautasunaren esia ta garbitasunaren gordailua» (Silvain)

—Orduan baruak egin bearko?——Elizak agintzen digunean bearko.

**Nortzuk daude barua egiteko beartuak?**

*Ogeita bat urte bete ta irurogeitan sartu ez diranak.* Geroztik ogei urte bete ta ogeita baterako egun bat bakaŕa gutxigo duana egun artan

oraindik eztago barua egitera beartua. Eta irurogeitan sartu dana ere ez beŕogei ta emeretziak bete dituan egunaz geroz

Baño bizkor ba-nengo beŕogeitan bezalaxe?— Ezta orduan ere, etzaude beartua barurik iñoiz geiago ateratzera. Baño baruren bat aterako bazendu zure gogoz, Elizak barkapenaz edo induljentziz aberasturik dauka baru ori.

**Oaŕa**. Naiz ogeita bat urteak betea izan, gaxo, eri, miñez ba-dago edo artatik sendatzen ari ba-da oraindik, eztu beartzen baruak.

*Ezta ere* beti gaxo-antza ta sendagaiak artuz dabilena eta auŕak azitzen ari dan ama.

*Ezta ere* beartsu, otordu bat on samaŕa egiteko biderik gabe dabiltzanak.

Ezta ere neke gogoŕetan gorputza beartzen dutenak; nekazari, aŕantzale artatik bizi diranak, okiñak, andre garbiketariak, argin, zurgin edo arotz eta lan neketsuetan dabiltzenak.

**Nortzuk daude aragia uzteko beartuak?**

*Zazpi urtetatik gorako ezagueradun kristauak, daude aragia uzteko beartuak.*

Zazpi urte beteak eta ezaguera izatea beaŕezko gauza da, ba, aragia uzteko bearturik egoteko. Geroztik beren bizian ezaguerarik ez dutenak, bizi guzian jan dezakete aragia, larogei urtetaraño biziko ba-lira ere, Elizak ezagueraduna bakaŕik nai du beartu lege ontara-ta.

Barurik ezin egin duten gaxo edo eriz bestelako guziak aragia uzteko lege onek aŕapatu egiten ditu. Geroztik lan gogoŕetako baru egin beaŕik ez dutenak, aragia utzi egin bear, ori bakaŕik edo oŕekin batean barua agintzen dan egun guzietan.

**Barua nola egiten da?** Barua egiten da otordu bat bakaŕa egunean egiñez; baño ziļegi da goizean bi ontza ta aŕatsean zortzi ontza janari artzea. (N. K. I.) (1)

Naiz goizean eta naiz aŕatsean artu diteken janari pixka, aragia ta aŕaia ez diteke izan, baño beste edozein ziļegi da, baita esne edo aŕaultzak ere.

Aragia utzi ta baru egin bear lukenak,ezpalu egingo zer pekatu egingo luke?

Naiz batak eta naiz besteak pekatu aundia egiten dute; gauza gutxi artzen dutelako ezpada beintzat.

Urtean zenbat eta zein baru ta bijili egun diran ez goaz jartzera, naiz Gazteiz edo Vitoria'ko Kristau Ikasbide beŕiak eta naiz Napaŕoa'koak argi dakazkielako.

Gorputz eta animan nai ba-dezu osasuna izan, Kristauari dagokion janaria ta Elizak esan bezala artu.

*Intza'r Damaso An.*

---

(1) (N. K. I.) Izki oiekin nai degu adierazi Napaŕoa'ko oraintxe argitaratu degun Kristau Ikasbidea.




# Parvulus nobis nascitur

## (Eguberitan)

(Choral: *Das neugeborne Kindelein*) **J. S. BACH**

**URTSUYA'ren Itzak.**

*Par-vu - lus no - bis na - sci - - - tur,*

**Andante** Bir - ji - ña gar - - bi - - a - - - gan - - dik



*De Vir - gi - - ne pro - - gre - di - - - - tur ob quem lae-*

Gaur ja - io zai - - - gu aur - txo bat; Ain-ge - ru-









## Parvulus nobis nascitur

I
Birjiña garbiagandik
Gaur jaio zaigu aurtxo bat;
Aingeruak poztu dira,
Poztu gaitezen orobat.

II
Or daukagu gizondurik
Jainko Aitaren Semea;
Gure aragiz da jantzı
Zeru-lur̃en Egil̃ea.

III
Paradisuan sugeak
Egin zigun ausikia
Sendatzera etor̃i da
Zerutik Jesus maitea.

IV
Eriotzaren mendetik
Berak atera nai gaitu,
Ta asar̃eturik daukagun
Jainkoa ber̃iz gozatu.

V
Askan dago eratzana,
Aur-oialetan bildua;
Aingeruekin guziok
Gora dezagun leiaka.

II
Maria, Mater Domini,
Aeterni Patris Filii,
Fer opem nobis omnibus
Ad te confugientibus.

III
Deum de Deo genitum
Tu genuisti Filium;
Qui non habet initium,
Ex te sumpsit exordium.

IV
Hunc partum admirabilem
Semperque conlaudabilem
Olim prophetae consono
Afflati sunt oraculo.

V
Qui totum mundum condidit
In te formatus exstitit;
Quem totus mundus non capit,
In tuo ventre iacuit.

VI
Gloria, tibi, Domine,
Qui natus es de Virgine,
Cum Patre et almo Spiritu
In sempiterna saecula.



# Portziunkulako Sua

Prantzisko Santua Asis'en bizi zanean, sar̃itan joaten zan Klara Santua ikustera ta oni burubide onak ematera. Ta onek Prantzisko Santuarekin bazkari bat egiteko gogo aundia zuan eta gogo ori askotan agertu zion Prantzisko Santuari, baña onek etzion poz ori ematen Klara Santuari; or̃egatik Klara Santuaren gogoa ikusita, lagunak esan zioten Prantzisko Santuari: Aita, Klara ar̃ebari, Jaungoikoak ainbeste maite duan Santu garbi aundi or̃i, zurekin bazkari bat egiteko poza ez ematea, Jaungoikoaren maitetasunarekin ez dator̃ela ondo iduritzen zaigu, batez ere ikusita, Klara ar̃ebak zure itzaldiak adituta munduko aberastasunak eta aundikeriak utzi zituela. Egi-egiz, ori baño mesede aundiagoa ere egin bear zenioke zure gogozko alaba or̃i.

Prantzisko Santuak orduan esan zuan: Uste al dezute ba aditu bear diotala? Lagunak erantzun zuten: Bai, Aita, ba oso bidezkoa da poz ori ematea. Prantzisko Santuak orduan esan zuan: Zuen iritzia ala bada ba, orain nerea ere alaxe da. Baña bere poza aundiagoa izan dedin, bazkari ori Portziunkulan egin bear degu, ba Klara aspaldian Done Damianen sartuta dago ta asko poztuko da Portziunkulan Jesukristoren emazte egin zan lekua ikusita: antxe bazkalduko degu ba alkar̃ekin, Jaungoikoaren izenean.

Egun jakiñean ordea, Klara Santua bere lagun batekin konbentutik irten zan da Prantzisko Santuaren lagunak lagunduta Portziunkulara joan zan, eta Portziunkulan Jesukristoren emazte egin zan aldare aur̃ean Andre Maria gogotik agurtuta, bazkaria gertu arte konbentua ikusten ibili zan.

Bitartean, Prantzisko Santuak, oitura zuan bezela, maia lur gañean jar̃i zuan; eta bazkalordua eldu zanean, Prantzisko Santua ta Klara Santua lenengo maian jar̃i ziran, gero Prantzisko Santuaren lagun bat eta Klara Santuaren laguna, ta gero beste guziak oso apalki.

Lenengo janaritzat, Prantzisko Santua asi zan jainkozko itzaldi bat egiten, da guziak zeruko gozotasunez beteta, begiak eta besoak zerura jasota, Jaungoikoarekin bat eginda, oso kordegabetuta geratu ziran. Eta guziak ola kordegabetuta zeudela, Asis'ko, Betonako ta inguruko gizonak su aundi bat ikusi zuten Portziunkulan da uste izan zuten Portziunkulako Eliza, Konbentua ta basoa eřetzen ari zirala era batera; ta alik laisteřen joan ziran sua itzaltzera, guzia eřetzen ari zalakoan.

Baña Portziunkulara eldu ziranean ikusi zuten, ango suak etzuela ezer ere eřetzen, da ořegatik ařituta bařura sartu ziran eta alako mai apalaren inguruan topatu zituzten Prantzisko Santua, Klara Santua ta lagunak oso kordegabetuta, begiak eta eskuak zerura jasota, Jaungoikoarekin bat eginda. Ta orduan argiro ezagutu zuten Portziunkulako sua etzala luřeko sua, baizik jainkozko sua zala, ta Jaungoikoak praiľe ta moja santu aien biotzetako jainkozko sua agertzeko, ain ařigařizko eran piztu zuala. Ta ořegatik oso poztuta andik alde egin zuten.

Prantzisko Santua, Klara Santua ta lagunak ola luzaro kordegabetuta egonda berenganatu ziranean, zeruko janariz aseta zeudenda luřeko bazkaria jateko gogorik etzuan iñork ere. Ta ola luřeko bazkaria egindakotzat emanda, Klara Santua Done Damianera biurtu zan ondo lagunduta. Orduan bere Aizpak asko poztu ziran beřiz au ikusita, ba bildur ziran Prantzisko Santuak beste leku batera bialiko ote zuan, bere Aizpa Ines Santua Plorentziako Konbentua zuzentzera biali zuan bezela. Prantzisko Santuak ordea bein baño geiagotan esan omen zion Klara Santuari: Gertu egon zaitez beste leku batera biali bear bazaitut edo; ta Klara Santuak, alaba menak bezela, beti erantzun omen zion Prantzisko Santuari: Aita, ni beti gertu nago zuk nai dezun lekura joateko. Ořegatik Aizpak ainbeste poztu ziran beřiz an ikusita. Klara Santua beřiz andik auřera beti oso poztuta bizi izan zan. Kristoren goramenerako.

(*Fioretti* deitutako liburu edeřetik euskeratua).

*Aita Eskoriatza.*

## PADUA'KO SAN ANTONIO'REN BIDEZ

*Martin Okiñena, nere mutikoa sendalariak etsia emanik neukan, eta Paduako Antonio Santuari agindu nion bere soñekoa eramatea, bi pezeta ematea Beartsuen ogitako ta* **Zeruko Argia'n** *jakitera ematea, sendatzen ba-zidan. Bereala onera eman zuan Martin'ek eta ederki sendaturik, pozik betetzen dut agindua.*

**Bere amak.**

**Ilabete onen 13'an Antonio Santuaren aldarean meza bat emango da ZERUKO ARGIAREN irakurle ta ongiľe guzien alde.**




# Txina'rako Bidean

Iraizoz'ko Polikarpo A'ri.
IRUÑA'RA



*NERE anai maitea: Badira amabost egun emen Shangaien gaudela. Jainkoari eskeřak, biar bertan aterako gera Kansu aldera.*

*Ortik, zuen artetik atera giñan ezkero oso ondo ibil̃i naiz. Genova'n lau egunez egon giñan. Oso ondo ikusi genduan uři guzia ta ezin politagoa iruditu zitzaidan. Gauza askotan Bilbo antzekoa. Baña Bilbo'n baño lan eta mugimentu ta industri gutxiago dago. Uria oso ordena gutxiduna da ta oso aundia. Edeřen edeřena iruditu zitzaidan il̃eřia. Askotan entzun det itz-egiten ileřiaz ta ala ere ez nuan bein ere asmatuko ain aundia zala. Naikoa da ikustea biotza mugitzeko ta gogoratzeko eřiak berez daukala auřekoenganako begiramentua ta agurtasuna.*

*Itxasoan ere ondo. Itxas-ontzia naiko aundia. Baña janaria guretzat oso txar-txařa. Egun askotan deus ere jan gabe, goragale aundia. Egaři bizia ta urik ez egařia iltzeko, ezta ere gaseosarik. Bakar-bakařik garagardoa. Au bai oso ona; baña guk zaletasun gutxi garagardoa edateko. Artzen nuan guzietan, oroitzen nintzan Aita Policarpo'z ta esaten nuan nere artean: «Ah, ah! Ura emen balego, nola edango luken garagardo gozo, otz au, sabel guzia bete arteraño». Azkenean gu ere zerbait egin giñan garagardoa edatera, batez ere Aita Eřapel eta ni. Etzegon beste eřemediorik.*

*Gañerakoan beti umore ona iduki genduan ta gure egunerokoa (di-*

*arioa) egiten genduan. Egunerokoa egiten nuan, gero misiora joatekoan, aldizkingietara batez ere* **Zeruko Argia'***ra* **ta Irugaŕengo'***ra idazteko. Oraindik ez dezaket ja ere idatzi aldizkingietarako: alde batetik burua ez oso ongi ibilaldian, jan ere ez genuelako egiten, ta gañera nerez ere ez ain osasuna-osasuntsua; beste aldetik liburu bat ere ez begien auŕean, denak bauletan. Oŕegatik ez da bat ere aŕitzekoa deus ere ez idaztea gure aldizkingirako. Geroago idatziko det zuek nai aña.*

*Emen Shangai'en Societas Verbi Divini dalako fraileen etxean egon gera egun guzietan, oiek baidira Kaputxinoen Procurador. Oso maitasun aundiz artu ta iduki gaituzte. Bakar-bakaŕik izkuntza ez jaki*



**Singapore'ko Portua.**

*tea ezbear aundi xamaŕa; latinez itz-egin bear, baña guk ta aiek itz-ebakitze ez-berdiña ta oŕegatik askotan ulertzeko zail xamar.*

*Biar osteguna, gaueko amabitan uretaratuko gera ingles-ontzian. Lenengo Shangai'tik Hankow'raño ibaiez, ingles-ontzian; bigaŕen, Hankow'tik Shanchow'raño trenean; irugaŕen Shanchow'tik Pingliang, eraño bein oñez, bein gurditxoetan, bein zaldietan. Bide guzia, gauzak ondo joan ezkero, iĺebete bat gutxi gora bera.*

*Baña alde guzietan gudu (geŕa) gogoŕa dabiĺelako, bildur aundia degu leku askotan gelditu bear izango degula eta batez ere trenean ez degula joan al izango, emen Txina'n gudua sortzean lendabizi egiten duten gauza trenak etendu edo irauli egitea dalako; ta oŕela iñor ere ez daiteke fiatu trenez ibiltzeaz.*

*Bidean, leku geienetan badaude katoliko misioak ta ola zerbait gertatu ezkero, aien etxeetan gelditu gaitezke. Oraingoz naiko dala uste det, ta Pingliang'era elduko geranean poztuko nintzake asko zure erantzupena an bertan eskuetara emango balidate, eskutitza (karta) ni baño len aratuta.*

*Agur, beste bat arte. Otoitz bat eskatzen dizu zure adiskide*

Yuŕe'tar Julian Aitak
Miss. Ap., O. M. C.

Aurean dagoen eskutitz (karta) orixe egin digu gure lagun maite izandako Yure'ko Julian Aitak. Joan den Dagonilaren (agoztuaren) 22'an sartu zan beste iru lagunekin ontzian Txina'ko misiotara joateko eta itsasoko aldia ongi edo egin dute, or dionez. Gaixo aiek orain izango dituzte lanak, beren misio-lekura iritxi arte. Gure misio ori Txina'n oso barna sartua dago, ta orain an dagon nasketa, gudu (gera) ta buruka gaitzekin lana naikoa beren lekura iristeko. Jainkoa lagun dakiela beren bidean eta galbide guzietatik onez atera ditzala.

Gure Misio-toki artatik oraintsu bidali dizkiguten beriak eztira zoritxarez oso onak. Kaputxino alemanak ta euskaldunak batean ari gera Misio artan eta ona zer idatzi (eskribitu) diguten andik.

Orain dirala bizpairu ilabete lau Misiolari aleman Misio-etxe nagusira zijoazen, beren lagunak ikusteko ta aiekin batean zortzi eguneko ejerzizioak egiteko asmotam. Arera joateko mendi aundi gora bat igaro bear zuten; bidea oso txara zuten, dena lar eta sasiz betea. Mendi artako zoko-moko batetik igarotzean, ara non ateratzen zaien lapur sail bat; zuten guzia ostu zieten misiolari gaxoai, erdi bilutsik uzten zituztela; il bear zituztela esan zieten, erukirik gabe zanpaka jo zituzten; eta jotzeaz aspertu ziranean joaten utzi zieten. Gero Misiolariak igeska zijoazela, lapur biotzgabe aiek tiroka asten zaizkie; baña Jainkoari eskerak tiroak etzuen bat ere arapatu.

Walter aita zanpatu zuten geiena. Noizpait ere lapuren eskuetatik askatu ta lasterari eman zionean, eroitz edo malkor batetik bera amilka erori eta gutxik egin zuen ezpaitzan antxe ilik gelditu.

Olako zenbat ez ote zaie gertatzen Misiolari gaixoai!

Jainkoak diela bere grazia ta laguntza guzi ori onez eramateko ta Jesusen lege santua fedegabeen artean zabaltzen aspertu gabe lan egiteko.

*Zuek beriz, Kristauak, Euskaldunak, ez aztu urutiko bazter aietan lanean ari diran misiolarietaz; lagundu misiolariai zuen otoitzaz (orazioaz) eta zuen limosnaz.*



# Ikasi..! Ikasi..!



I.—Don Migel jaun euskalduna
Egurastera zijoan;
Diru-toxa galdu zaio
Oarkabean bidean.



II.—Oŕa or Martin txintxoa
Ta Pedro ijito-semea;
Oietxek arkitu dute
Don Migel'en diru-toxa.



III.—Martin Txintxo'k jabeari
Nai dio guzia itzuli;
Pedro lapuŕak berentzat
Gorde nai du diru ori.



IV.—Bat ezetz, bestea baietz
Or ari dira buŕukan;
Martin'ek oiu egin ta
Don Migel laster antxe zan.



V.—Pedro joan da igesi;
Ta Don Migel'ek Martini
Bost durokoa eman dio
Txintxoa izan dalako.



VI.—Martin'ek bost duroko ori
Txintxo ematen amari...
*Ongi egiten badezu*
*Iñoiz damuko etzaizu.*




### Inglateŕa'n katolikoak irabazi dutena.

Pozgaŕiak dira, gure Elizak Inglateŕa'n egiten dituan auŕerapenak.

Iru urtetan, 1924'tik 1927'ra, 122 apaiz beŕi egin dira, 104 eliza, bigaŕen malako 35 ikastetxe edo eskola ta lenengo malako 68.

Bigaŕen malako ikastetxetan dabiltzanak igo dira 53.227'raño ta lenengo malakoak 361.820.

Lau urtetan, 1922-1926, gure elizara etoŕi dia 49.605, Eskozia zenbatu edo kontatu gabe.

### Izpeŕingi katolikoaren indaŕa.

Goi-Amerika'n katoliko egin da Eduardo Wallace, protestante argia. Artzai edo apaiz protestante izan da 30 urte oyetan. Egunero irakuŕi du adiskide batek bialdu dion izpeŕingi edo periodiku katolikoa ta onek iriki dizkio begiak. Bere emazte ta bi seme ere katoliko egin dira.

Eduardo Wallace onek, katoliko egin da gero, esan du bere ustez katolikoak ez dutela bear ainbat lan egiten izpeŕingiaren bitartez ta oŕegatik ez dirala bear ainbeste gure Elizara etortzen.

### Irudi bikain ta galanta.

Budapest uriko toki edeŕenean, Gerardo Santuaren mendian, jasoko diote katolikoak Ama Birjiñari irudi (estatua) bikain ta galanta. Izango da 12 metro luze ta uriko toki guzietatik ikusiko da. Irudiaren oñetan dagon arkaitzean egingo dute Lourdes'koaren antzekoa izango dan artzuloa (gruta). Ortarako bear dan diru guzia bilduko da, eŕiak eman da.

### Holanda'ko katolikoak ta radioa.

Jakiña zenbat on ta nolako kalteak egin ditzaken gaurko egunean radioak. Onegatik pozgaŕia da Holanda'tik datoŕen beŕia, ango katolikoak radio beŕi bat ipiñi dutela esanaz. Ango gotzai edo obispoak txalotu ta bedeinkatu dute katolikoen asmo edeŕa. Van Rossum Kardenalak ere idatzi die esanaz: Zuek egin dezuten lan eder oŕekin, asko irabaziko du Elizak ez bakaŕik katolikoen artean baita ere mixiotan ta katolikoak ez diranen artean.

### Lovaina'ko Ikastetxea ta liberalak.

Brabante'ko diputaduak ari ziran, orain dala gutxi, Bruselas'ko Ikastetxe Nagusiari (universidad) nolako laguntza eman bear ote zitzaion ikusten ta norbaitek esan zuan 400 mila franko eman bear zitzaizkiola. Katolikoak eskatu zuten obe izango zala 400 mila oyetatik erdia Lovaina'ko Ikastetxeari ematea. Gogora ekaŕi zien diputadu liberalai gobernuak nola laguntzen dien biyai, Lovaina'ko Irakasleak edo maixuak Bruselas'koak baño gutxiago irabazten dutela ta batez ere zein izen ona daukan Beljika'k Lovaina'ko Ikastetxeagatik.

# 1925'ko Zeruko Argia'ren

## Arkibide osoa


| | | *Oŕialdeak.* |
|---|---|---|
| *A. B. A. O. m. cap.* | Aita Santuaren Ordekoa Napaŕoa'n.. | 506 |
| *Aldaz'tar Ignazio M.ª A.* | «¡Agur, Maria!» «¡Agur, Bernardo!» | 409 |
| » » | Artzai protestantea eta nekazaria | 509 |
| » » | «Agur, Maria». | 539 |
| *Aleman'dar Pel̃o.* | Abereen negutea | 415, 431 |
| *Almanaka (Eskualdunaren)* | Zertan geran | 410 |
| *Amaialde.* | Il ote dira loreak (olerkia) | 523 |
| » | Urdazubi'n il̃eta-oitura edeŕa | 560 |
| *Aŕayoz'tar Pastor A.* | Seaska auŕean (olerkia) | 398 |
| *Arbelaitz* (ikusi *Cultrera).* | | |
| *Ar'tar A.* | ¡Oi osti osasungaŕia! | 474 |
| » | Jesus eta Joan Bautista (olerkia). | 487 |
| » | Iru apaiz prantziskar aldaretan. | 521 |
| *Aŕua'tar Simon A.* | Jesus'en izen txit deuna. | 394 |
| » » | Gertaera bat | 440 |
| » » | Ludiaren asnas aŕtzea | 466, 482, 579 |
| *Cultrera - Arbelaitz.* | Emakumea ta irakurgaia | 418 |
| » » | Irakurgai onen zabaltze-lanaren agerkai edo programa labuŕa. | 464 |
| *Donosti'ar Gabriel A.* | Misioen alde | 432 |
| *Donosti'ar J. Antonio A.* | O salutaris hostia (eresia) | 524 |
| » » | Gora zagun » | 540 |
| *Elduayen'dar Tomas A.* | Jesus'en izena (eresia). | 396 |
| » » | Damua » | 412 |
| » » | Umien jaunaŕtze auŕerako (eresia) | 476 |
| » » | Umien jaunartze ondorako » | 492 |
| » » | «Txuria da lilia». Eresia Sortzez Garbiari | 572 |
| *Eskoriatza (Aita)* | Prantzisko Donea, Izate zalea. I. | 517 |
| » » | Prantzisko Donea, Izate zalea. II. | 552 |
| *Garbizu ta Salabeŕi'ar Jon (Zubigar).* | Udazkena (Iruña'n saritutako olerkia) | 555 |
| *Giehrl Emma.* | Eguzkia (olerkia, euskeratua) | 411 |
| *Heinrich Hoffmann.* | Kukua (olerkia, euskeratua) | 456 |
| *Ibaŕetxe'tar Iñaki.* | Merketza. Erosketa bat egiteko oaŕak | 514 |
| *Idazleak.* | ¡Urte beŕi on! | 391 |
| *Intza'r Damaso A.* | Bigaŕen agindua: zin egitea | 397 |
| » » | » » Bel̃a (Botoa). | 408 |
| » » | Irugaŕen agindua: Jai-egunak jai egitea. | 453 |
| » » | » » Zer debekatzen digun | 469 |
| » » | » » ¿Nola jai egin? | 488 |
| » » | » » Jai-eguna, eguna alaia | 501 |
| » » | Laugaŕen agindua: Aita-amak gorestea. | 525 |
| » » | » » Gurasoai dogokien lotsa. | 536 |
| » » | » » Gurasoen esanak egitea | 557 |
| » » | » » Gurasoei laguntzea. | 565 |
| *Intza'r Lorentzo A.* | Iru Eŕege jakintsuak. | 392 |

| | | Oŕialdeak. |
|---|---|---|
| *Iraizoz'tar Polikarpo A.* | Jesus'en Nekaldia eta Prantzisko Santua | 447 |
| » » | Atozkit, Jesus ona (olerkia) . . . . | 556 |
| » » | Artxueta mendian . . . . . . . | 571 |
| *Irular.* | Eriotza-garailea (Ituŕaldena) . . . . | 490 |
| *Izaskun.* | Asis'tar Prantzisko Donea goresten . Il zaneko zazpigaŕen eun-urte betetzea. | 533 |
| *Izengabeak.* | Eguzkia (olerki euskeratua) . . . . | 411 |
| » | Auŕa ta bere aingerua (olerki euskeratua) . . . . . . . . . . . | 413 |
| » | 1925'ko baru ta aragi-uzteko egunak buldadunentzat. . . . . . . . . | 423 |
| » | Prantziskotar Santuak . . . . . . | 425 |
| » | Jose Santuaren atsekabe-atsegiñak (olerkia) . . . . . . . . . . . . | 429 |
| » | Gurutze-bidea (olerkia). . . . . . | 445 |
| » | Auŕen txokoa . . . . . . . . . | 451 |
| » | Osasuna. . . . . . . . . . . | 451 |
| » | Kukua (olerki euskeratua) . . . . . | 456 |
| » | Agur Maria (olerkia). . . . . . . | 459 |
| » | Umien jaunaŕtze auŕerako (olerkia) . . | 476 |
| » | Ignazio Loyolaŕaren zeruratzea (olerkia) | 491 |
| » | Umien jaunaŕtze ondorako (olerkia) . . | 492 |
| » | Auŕen aldeko eŕiarteko alkartasuna. . | 507 |
| » | Sub tuum praesidium (euskeratua) . . | 508 |
| » | Euskeraren Adiskideak . . . . . . | 570 |
| *Jauregi-Etxenagusia'tar L.* | Amonatxoa... eskean (olerkia). . . . | 510 |
| » » | Il-obi baterako (olerkia). . . . . . | 559 |
| *Jautarkol* | Zergatik...! (Olerkia). . . . . . . | 538 |
| *Laŕeko.* | Osasuna. Osasungaŕizko zerbeit. . . | 434 |
| » | Osasungaŕizko zerbeit. Eskuak . . . | 473 |
| » | » » Uliak. . . . | 494 |
| *Leitza'r Markos A.* | Eŕosario Deuna . . . . . . . . | 541 |
| *Maruri'tar Eŕamun A.* | Austeŕe (olerkia). . . . . . . . | 427 |
| « » | Ostiral Deuna (olerkia). . . . . . | 449 |
| » » | Nere ama (olerkia) . . . . . . . | 490 |
| » » | Gogo gaxoak (olerkia) . . . . . . | 551 |
| » » | Miren edeŕa (olerkia) . . . . . . | 571 |
| *Mikel.* | Protestante'en leia Txina'n. . . . . | 527 |
| *Mokoroa'tar Justomari. Sch. P.* | Ipsum audite . . . . . . . . . | 389 |
| » » | Jesus'i entzuten. «Ni naiz». . . . . | 405 |
| » » | » » «Ez izutu, Ni naiz». . | 421 |
| » » | » » «Ni naiz zerutik jetxitako Ogi bizia». . . | 437 |
| » » | Jesus'i entzuten. «Ni naiz munduaren argia» . . . . . . . . . . . | 483 |
| » » | » » Ni naiz ardien atea» . | 549 |
| » » | Liburu beŕiak. «Morfologia vasca, por Resurrección María de Azkue» . . . | 564 |
| *Oleartso.* | Luŕa . . . . . . . . . . . . | 512 |
| » | Itxasoa . . . . . . . . . . . | 578 |
| *Osinburu.* | Aziera . . . . . . . . . . . | 401 |
| » | Sukaldea. . . . . . . . . . . | 402 |

| | | Oŕialdeak. |
|---|---|---|
| *Osinburu* | Osasuna. . . . . . . . . . . . | 402 |
| » | Aziera ¿noiz? . . . . . . . . . . | 416 |
| » | Auŕen txokoa. Sukaldea . . . . . | 417 |
| » | Aziera. «Ama gezurtia». . . . . . | 499 |
| » | Auŕen txokoa . . . . . . . . . . | 513 |
| » | Etxeko jolasak. . . . . . . . . | 514 |
| » | Aziera. «Joxepa ao aundi.» . . . . | 518 |
| » | » «Bordabeŕiko etxekoandrea«. . | 543 |
| » | Sugetzaŕen aŕiskua. Misiolari baten itzak | 561 |
| » | Etxea . . . . . . . . . . . | 576 |
| *Osservatore Romano.* | Misiolari Kaputxinoen lana . . . . | 399 |
| *O'tar A. O. M Cap.* | Padua'ko Antonio'ren bitartez ogeimila laurleko (peseta) . . . . . . . . | 400 |
| » | Baseŕitar Antonio Deun Zalea. . . . | 414 |
| » | Paduako Antonio Deunak, lapurtuak itzulierazten ditu . . . . . . . . | 426 |
| » | Padua'ko Antonio Deunaren txartela . | 465 |
| » » | Padua'ko Antonio Deunak ez du uzten. | 475 |
| » » | Padua'ko Antonio Deunaz. Gatzik gabeko labekada . . . . . . . . . . | 543 |
| » | Padua'ko Antonio Deuna. Gizaseme baten edespena . . . . . . . . . | 574 |
| *Otto Denk.* | Auŕa ta bere aingerua (Olerki euskeratua) . . . . . . . . . . . . . | 413 |
| *Oyartzuna.* | ¿Zu ote zera? (Gaztetxoentzat). . . . | 442 |
| » | Luis Gontzagataŕa, zerutik etoŕitako aingerua. . . . . . . . . . | 479 |
| *Praxku.* | Galdetxoak. . . . . . . . . . | 462 |
| » | » . . . . . . . . . . . | 480 |
| *Tolosa'r Bernardo A.* | Danetik. 403, 467, 483, 499, 515, 531, 547, | 563 |
| » » | Naskaldia . . . . . . . . . . | 419 |
| « » | Beŕiak . . . . . . . . 435, 452, | 580 |
